LEZO

# AGENDA Kulturala

2023 // URRIA - ABENDUA




Lezoko Unibertsitateko Udala

LEZO KULTURA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua

ORAIN KULTURA

SAREA
EUSKADIKO ANTZOKI SAREA
RED VASCA DE TEATROS

# HAUR ANTZERKIA ///////////////////////////////////

Gezala Auditoriumean, ostiraletan, 17:15ean

**TEATRO INFANTIL**



URRIAK **20**
Ostirala
17:15,
Gezala
Auditoriuma

## AMETS PIRATA

**Ainhoa Etxebarria. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 3€

Nork dio neska bat ezin dela pirata izan? Ametsek argi dauka pirata izan nahi duela, eta, horregatik, ez du zalantzarik izango zorionaren giltza aurkitzeko abentura batean murgiltzeko, berak nahi duena lortzeko eta haur guztiek nahi dutena izan eta beraien ametsak lor ditzaten.




AZAROAK **3**
Ostirala
17:15,
Gezala
Auditoriuma

## PLAST & CO

**Ttipia. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 3€

Estrespean bizi den gizon bat mendian galdurik dagoen baserri batera doa baina baserria ez da berak uste bezain lasaia. Baserrian izaki bitxi batzuk bizi dira eta ez dute haien etxea uzteko inolako asmorik. Plast jaunaren kontra ari dira lehian, izan ere, “Plast & Company”-ren jabeak haien etxea plastiko nazkagarriz bete du.



AZAROAK **17**
Ostirala
17:15,
Gezala
Auditoriuma

## TEILATUPEAN

**Lanku. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 3€

Lur gaztetxoak haserre ihes egin du gurasoenetik, bere etxea eraiki asmoz, bertan nahi duen guztia egin ahal izateko. Auzuneko orube batean Doro topatu du, munduko bazter guztiak ezagutzen dituen baina inon bizi ez den artista ibiltaria.




ABENDUAK **1**
Ostirala
17:15,
Gezala
Auditoriuma

## LOTI EDERRAK

**Glu Glu. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 3€

Gaizkiñek sare sozialen erresuma kontrolatzen du. Tiki Taka sarearen influencer nagusia da bera. Bertan, gazteak ustez ikusgarriagoak eta politagoak izateko, haien irudiak argitaratzen dituzte, zer eta arrakastaren bila.
Gazte horietako bat, Goizeder, malefizio baten biktima izango da, lo geratuko da, telefono mugikorren eta sareen sorginpean.

# HAUR ZINEMA ////////////////////////////////////////

Gezala Auditoriumean, larunbatetan, 17:00ean

**CINE INFANTIL**




URRIAK
**21**
Larunbata
17:00,
Gezala
Auditoriuma

## HOPPER OILASKOERBIA

Hopper erdi oilasko eta erdi erbi jaio zen abenturazale ospetsuaren istorioa kontatzen du. Pedro erregearen seme adoptatua da. Ezberdintasunak gorabehera, onartua izateko irrikaz dago Hopper, eta abentura zirraragarri bati ekin dio Abe zerbitzari leialarekin (dortoka sarkastiko bat) eta Meg arte martzialetan aditua den mofeta ausartarekin, Iluntasunaren Hamster izeneko erlikia diruzalearen bila. Hirurek erronka handi bati egin behar diote aurre, Lapin baino lehenago iritsi behar baitute. Lapin gaizkilea da, eta duela gutxi kartzelatik ihes egiteak erreinuko bakea mehatxatzen du.

---




AZAROAK
**18**
Larunbata
17:00,
Gezala
Auditoriuma

## DRAGOIAREN GIDARIA

Istorioak Firedrake dragoiaren abenturak kontatzen ditu. Dragoi gaztea da, gizakiengandik basoan ezkutatzen ibili beharraz nekatuta dagoena eta leinuko nagusiei jada benetako dragoia dela erakusteko irrikan dagoena. Izan ere, gizakiak dragoien azken babeslekua suntsitzeko zorian daudenean, orduan ekingo diote Firedrakek eta bere lagun Gorritxok, ezkutuan, Zeruaren Ertza-ren bila joateko abenturari. Bilaketa-bidaia horretan Ben ezagutuko dute, eurekin bat egingo duen kaleko mutil umezurtza. Baina laster igarriko diote ez doazela bakarrik... Zatartor atzetik doakie-eta. Munstro izugarri ikaragarria da, eta asmo bakarra du: Lurreko dragoi guztiak aurkitu eta akabatzea.

---




ABENDUAK
**2**
Larunbata
17:00,
Gezala
Auditoriuma

## IZURDE MUTIKOA

Izurde batzuek itsasoan galdutako ume bat salbatzen dute, eta familiako beste bat balitz bezala hezten dute. Poz-pozik bizi dira olatu azpian, harik eta munstro zital batek urpeko mundua bereganatzen duen arte. Umetxoa lehorrera erbesteratzen dute, eta bertan bihotz oneko Murvarid kapitainak hartzen du etxean. Kapitainaren eta bere lagun mina eta ia anaia den Elur-bola izurdearen laguntzaz, mutikoak bere benetako jatorriaren misterioa argitzeko bidaia bati ekingo dio. Abentura zirraragarriak ditu bistan!

---

# ZINEMA FAMILIAN / DOKUMENTALA//////

Gezala Auditoriumean

**CINE FAMILIAR - DOCUMENTAL**




URRIAK **6**
Ostirala
19:00,
Gezala
Auditoriuma

## LUR URRATUA

**Lur urratua, basoaren memoria-memoriaren basoa**
Atzoko istorio bat, bihar errepika ez dadin, gaurko pertsonek kontatua. Lezoko frankismoaren esklaboei buruzko dokumentala. Jaizkibelgo errepidea bortxaz eraikitzera zigortutako presoen historia. Urte gehiegitan ezkutuan eta isilik egon den gure historiaren zati ezezaguna. Historia hori ezagutu eta zabaldu behar dugu.

KONTATZEN EZ DENA EZ DA EXISTITZEN!!!

ETXETXO
Lezoko memoria historikoaren taldea




AZAROAK **18**
Larunbata
19:00,
Gezala
Auditoriuma

## LAS BUENAS COMPAÑIAS

Verano de 1977. Bea tiene 16 años y se suma a los aires de cambio que recorren el país; colabora con un grupo de mujeres para visibilizar la causa feminista y lograr la aprobación del derecho al aborto. La rebeldía que siente en la sangre se mezclará con un sentimiento inesperado que trastocará su mundo interior. A lo largo de estos meses, Bea entablará una amistad muy especial con Miren, una chica algo mayor que ella y de buena familia. Su compromiso político y su relación con Miren convertirán ese verano en una etapa que marcará un antes y un después en su vida.




ABENDUAK **2**
Larunbata
19:00,
Gezala
Auditoriuma

## IRATI

Karlomagnoren armada Pirinioak sarraskitzen ari da, eta, hari aurre egiteko, ibarjaunak laguntza eske jotzen du bertako jainko zaharrengana, zeinak desagertzeko zorian baitaude kristautasunaren eraginez. Odolezko itun baten bitartez, ibarjaunak etsaia garaitzen du, trukean bizia emanda, baina lehenago, Eneko semeari hitzemanarazten dio ibarjaun zuzena izango dela. Urte batzuk beranduago, Eneko, jada heldua eta kristau fedean hezia, umetan egindako promesa betetzera doa; baina, orduan, aitaren gorpua, frankoei hartutako altxorrarekin batera lurperatu zutena, modu ulertezinean desagertzen da.

# IPUIN KONTAKETAK ////////////////////////////////

Udal liburutegian asteazkenetan, 18:15ean

**CUENTA CUENTOS**



URRIAK **4**

Asteazkena
18:15
liburutegian
4-7 urte

IXABEL AGIRRESAROBE

## ARGI IBILI!



URRIAK **11**

Asteazkena
18:15
liburutegian
4-7 urte

PELLO AÑORGA

## PANTXO ZEZENA



URRIAK **18**

Asteazkena
18:15
liburutegian
4-7 urte

MIKEL SUSPERREGI

## MARKESANEKO MAMUA



AZAROAK **8**

Asteazkena
18:15
liburutegian
4-7 urte

INES BENGOA

## IPUIN ZOPA



AZAROAK **15**

Asteazkena
18:15
liburutegian
4-7 urte

ANA APIKA

## ANIMALIAK



AZAROAK **22**

Asteazkena
18:15
liburutegian
4-7 urte

LUR KORTA

## MAITASUNEZ BETERIKO IPUINAK



AZAROAK **29**

Asteazkena
18:15
liburutegian
4-7 urte

AMAIA PUIN

## BIDAIA



**DESKARGATU LEZOKO APP-A**

Agenda osoa, sarrerak erosteko aukera eta beste gauza asko kulturako APPan.

# DANTZA / ANTZERKIA//////////////////////////////////

Gezala Auditoriumean, igandeetan, 19:30ean




URRIAK
**8**
Igandea
19:30
Gezala
Auditoriuma

## HOBE IXILIK!

**Txalo. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 8€

Emakumea eta gizona. Gizona eta emakumea. Solasean, zirika, eztabaidan. Zertaz? Berdin dio. Eguneroko kontuak, gazta-tarta, patinetea, almorranak... edo gai potoloak, aldaketa klimatikoa, politika, Me Too... Baina esan, dena esan behar al da? Ixiltzea ez al da hobe batzutan?



URRIAK
**22**
Igandea
19:30
Gezala
Auditoriuma

## 10. URTEURRENA

**Lasala. EUSKAL HERRIA. HITZIK GABE.** SARRERA 8€

Lasalak, Judith Argomanizek zuzentzen duen dantza garaikideko konpainiak, 10 urte betetzen ditu aurten. 2013an sortu zenetik, konpainia etengabeko araketan ari da hizkuntza fisiko bat eta egungo estetika bat sortzeko helburuz, taldearen kezkak islatzeko eta kezka horiei erantzuteko.



URRIAK
**29**
Igandea
19:30
Gezala
Auditoriuma

## MIERDA DE CIUDAD

**Solobe Art. EUSKAL HERRIA.** CAST. ENTRADA 8€

Proyecto escénico de carácter performativo que narra el movimiento contracultural del Rock Radical Vasco y su contexto histórico de luchas y música, utilizando como analogía el western y la colonización cultural. Una historia contada en primera persona por 3 intérpretes y 3 artistas colaterales.




AZAROAK
**5**
Igandea
19:30
Gezala
Auditoriuma

## ANONYME POPULAR

**Igor Elortza eta Rafa Rueda. EUSKAL HERRIA.** EUS. 8€

Anonyme Popular edonor izan daiteke, eta, aldi berean, norbait da. Igor da. Inor. Bere izenean eta besteren abizenean arituz, nitasun garaikide ertzdun bat dakar hitzetara Igor Elortza bertsolariak, gutartasun lanbrotsu baten erdian. Hitzak jostari josiz jarri ditu bertsoak eta Rafa Ruedarekin landu ditu doinuak eta soinuak ere. Rapa, trapa, popa, funkya, mundurako erritmoak…




AZAROAK **19**

Igandea
19:30
Gezala
Auditoriuma

## LA INVASIÓN DE LOS BÁRBAROS

**Arden Producciones. VALENCIA.** CAST. ENTRADA 8€

Valencia 1939. Una conservadora del Museo del Prado es interrogada por un teniente franquista acerca del paradero de un cuadro que ha desaparecido. Provincia de Valencia 2009. Una periodista acude al ayuntamiento a entrevistarse con su alcalde. Un relato que transcurre simultáneamente en dos momentos y espacios diferentes.

---




AZAROAK **26**

Igandea
19:30
Gezala
Auditoriuma

## MAGMA MIA BAKARRIZKETA

**Beatriz Egizabal. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 8€

Beatriz Egizabal pailazo eta aktore feministaren bakarrizketa umoretsua. Honelaxe dio protagonistak: “Haserre nago, sutan nago, irakiten nago… presio gehiegi eta zulo guztiak itxita mantentzeko hezi naute”. Sumendia lehertzear dago: Magma Mia.

---



ABENDUAK **3**

Igandea
19:30
Gezala
Auditoriuma

## LA LLUVIA AMARILLA

**Viridiana. ARAGÓN.** CAST. ENTRADA 8€

La novela de Julio Llamazares fue la primera obra que habló de la España vacía, desde entonces se ha convertido en un clásico de nuestro tiempo. A la fuerza desgarradora del texto se ha unido una cuidada puesta en escena, un impactante trabajo actoral y canciones en directo que lo convierten en una cita imprescindible.

---




ABENDUAK **17**

Igandea
19:30
Gezala
Auditoriuma

## KANPORA SARTZEN

**Txalo. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 8€

Umorez betetako emanaldi gordina.
2013ko martxoaren 11n, Xabinek seropositiboa zela jakin zuen; egun hartan, dena aldatu zen. Hamar urteren ostean, Xabinen eta Birusaren arteko harremanari buruz hitz egiteko garaia heldu da. Pilulak, estigma, lotsa, kontsultak, beldurra, kulpa, bakardadea... Nola eragin du birusaren etorrerak Xabinen eguneroko bizitzan?

# LITERATUR SOLASALDIAK ////////////////////

Astearteetan18:30ean, GAZTELERAZ
Asteazkenetan 18:30ean, EUSKARAZ

Udal liburutegian **CHARLAS LITERARIAS**




URRIAK **25** EUSK

## MUNDUKO TOKIRIK EDERRENA

IÑIGO ARANBARRI




AZAROAK **21** CAST

## EL CLUB DEL CRIMEN DE LOS JUEVES

RICHARD OSMAN




ABENDUAK **13** CAST

## NIK KANTATU ETA DANTZA EGITEN DU MENDIAK

IRENE SOLÀ

Euskarazko solasaldiak **Ane Mayoz**ek dinamizatuta izango dira. Gaztelerazkoak, **Javier Minak.**

Las charlas en euskera serán dinamizadas por **Ane Mayoz**. Las del castellano, por **Javier Mina.**




## Gezala Auditoriumeko LAGUN TXARTELA

**PREZIOA:**
25€ [Gazte Txartelarekin 20€]
Salgai jarritako txartelen kopurua mugatua izango da eta urteko balioa izango dute.

**ABANTAILAK:**

1. %30eko deskontua Gezala Auditoriumean programatzen den ekitaldi orotan.
2. Urteko programazioaren barruan, **doako bi kontzertu eta doako bi dantza-emanaldi aukeran.**
3. Ostiraletako haurrentzako ekitaldietan, bi sarrera doan.
4. Emanaldiko doako 4 sarrera zozketatuko dira.

**EROSTEKO TOKIA:**
Kultura Saila edo sarrerak online erosteko gunean (kasu honetan txartela posta bidez bidaliko da).

**OHARRA:** Edozein kasutan, sarrerak ekitaldiaren eguna baino lehen eta erosi beharko dira.

- Onlineko erosketan jasoko den pasahitzen bitartez.
- Aldez aurreko salmentan: Lagun Txartela aurkeztu beharko da.

Prozedura berdina doako dantza eta musika ekitaldietan sarrerak eskuratzeko.

***PRECIO:***
*25€ (con Gazte Txartela: 20€) El número de tarjetas a la venta será limitado y su validez será anual.*

***VENTAJAS:***

1. *30% de descuento en toda la agenda cultural del Auditorium Gezala.*
2. *Dentro de la programación anual,* **dos conciertos y dos actuaciones de danza gratuitas a elegir**.
3. *En los actos infantiles de los viernes, dos entradas gratuitas.*
4. *Por cada evento se sortearán 4 entradas gratis.*

***LUGAR DE ADQUISICIÓN:***
*Departamento de Cultura o en venta de entradas on-line (en ese caso la tarjeta será enviada por correo).*

***NOTA:*** *En cualquier caso, las entradas se deberán adquirir con antelación al día del evento.*

- *Para la compra online será necesaria la clave que se sumistrará.*
- *Venta anticipada en taquilla. Será necesaria la presentación de la Lagun Txartela.*

*Esto mismo valdrá para la adquisición de entrada en los eventos gratuitos de danza y música.*

# POESIA KAIA ////////////////////////////////////////

Azaroak 21, 22, 23, 25

POESIA



**AURELIO AGUIRRE GALARRAGA** (Santiago, 1833-04-23 - A Coruña, 1858-07-30), María Josefa Galarraga Echeveste lezotarraren semea, omentzeko eta oroitzeko ekitaldiak (Lezo, 1805-05-30 -Santiago de Compostela, 1882-11-27).

Actos homenaje y recuerdo al gran poeta gallego **AURELIO AGUIRRE GALARRAGA** (Santiago, 23-04-1833 - A Coruña, 30-07-1858) hijo de la lezotarra María Josefa Galarraga Echeveste (Lezo, 30-05-1805 -Santiago de Compostela, 27-11-1882).

---

**AZAROAK 21**
Asteartea
19:00,
Kultur aretoa

**ADOLFO MUÍÑOS** Pedagogian lizentziatua eta Rianxo-ko, A Coruña, alkate ohiaren eskutik **"AURELIO AGUIRRE GALARRAGA"** ama lezoarra izan zuen galiziar poeta handiaren inguruko hitzaldia.

Conferencia a cargo de **ADOLFO MUÍÑOS,** licenciado en Pedagogía y ex-alcalde de Rianxo (A Coruña): "**AURELIO AGUIRRE GALARRAGA**" el gran poeta gallego de madre lezoarra.

**AZAROAK 22**
Asteazkena
19:00,
Gezala Auditoriuma

**EUSKADI GALIZIAR ERREZITALDI MUSIKATUA**

**RECITAL VASCO-GALLEGO MUSICADO**

**Errezitatzaileak:**
**ANTTON KAZABON** idazle oiartzuarra euskaraz eta **XOSÉ ESTEVEZ** historialaria, galegoz. Aurelio Aguirre, Rosalia de Castro, Anttón Kazabon eta Lander Zurutuzaren poemak.

**Musika:**
**Edurne Saizar** (pianoa), **Haizea Lekuona** (txirula) eta **Oihane Mitxelena** (akordeoia).

**Recitadores: ANTTON KAZABON** escritor Oiartzuarra, en euskara y **XOSÉ ESTÉVEZ**, historiador, en gallego. Poemas de Aurelio Aguirre, Rosalía de Castro, Anttón Kazabon y Lander Zurutuza.

**Música:**
**Edurne Saizar** (piano), **Haizea Lekuona** (flauta) y **Oihane Mitxelena** (acordeón).

---

**AZAROAK 23**
Osteguna
19:00,
Kultur aretoa

**AURORA LUKE** (2022ko Poesia Sari Nazionala) eta **MAITE LOPEZ DE LAS HERAS**, Safo poetaren euskaratzailea.

**AURORA LUKE** (Premio nacional de poesía 2022) y **MAITE LÓPEZ DE LAS HERAS,** traductora del poeta Safo al euskara.

**AZAROAK 25**
Larunbata
19:00,
Gezala Auditoriuma

**LUIS GARDE** (Euskadi Saria 2016), **LIZAR BEGOÑÁ** (2020an Donostia Kultura III. Poesia Lehiaketa irabazlea) **MIKEL ARRUABARRENA** (gipuzkoar poeta eta fisikaria) eta **JON MAKUSO** bibolinean.

**LUIS GARDE** (Premio Euskadi 2016), **LIZAR BEGOÑA** (ganadora del III Concurso de Poesía Donostia Kultura 2020), **MIKEL ARRUABARRENA** (poeta y físico guipuzcoano) y **JON MAKUSO** al violín.

# LEZOKO ANTZERKI LABURREN LEHIAKETA

## URRIAREN 7A, LEZO. FESTA HANDIA

**19:30ean:** LA BRAVA. **20:00etan:** EKITALDIAren hasiera.

Udalak, 18 testu jaso ditu eta lehian izango diren, sei testu finalistak ondoko aditu talde honek aukeratuko ditu.



Lierni Fresnedo
Lezoko aktorea
eta Orratx taldeko
zuzendaria



Kepa Errasti,
aktore eta
dramaturgoa



Agurtzane
Intxaurraga
zuzendari eta
dramaturgoa

Antzerki zuzendariak:



Ander Lipus



Maika
Etxekopar



Olatz
Beobide

Aktoreak:



Eneritz
Artetxe

Maryse
Urruty





Koldo
Olabarri

Idoia
Tapia





Kimetz
Etxabe

Raquel
Salinas



Musikariak:



Idoia
Hernandez
(Hatxe)



LA BRAVA
DJ-a

Eta festa dinamizatzen eta leherrarazten bi aktore hauek:



Miren Gaztañaga



Xanti
Agirrezabala

Guztiak jolasean, baina
**TESTU IRABAZLEA PUBLIKOAK AUKERATUKO DU**

*Zatoz Lezora
urriaren 7an!*

# MUSIKA EMANALDIAK/////////////////////////

## URRIA

| | | | |
|---|---|---|---|
| 14 | 16:30 | GANBARA MUSIKA (MATINÉES) | Musika eskola |
| 21 | 12:30 | KANTUJIRA | Aiton Bordatik abiatuta |
| 28 | 16:30 | GANBARA MUSIKA (MATINÉES) | Musika eskola |

## AZAROA

| | | | |
|---|---|---|---|
| 18 | 12:30 | KANTUJIRA | Aiton Bordatik abiatuta |
| 19 | 11:00 | STA.ZEZILIA KALEJIRA (TXISTU) | Herriko kaleetan |
| 23 | 20:00 | KANTA-KANTARI-MUSIKALEAN | Musika eskola |
| 25 | 18:30 | AKORDEOI AUDIZIOA | Musika eskola |

## ABENDUA

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | 17:30 | EUSKERAREN EGUNA | Musika eskola |
| 16 | 12:30 | KANTUJIRA | Aiton Bordatik abiatuta |
| 20 | 17:30 | GABONETAKO AUDIZIOA (1.1&1.2) | Gezala Auditoriuma |
| 21 | 20:00 | GABONETAKO KONTZERTU KORALA | Gurutze S. basilikan |
| 22 | 18:00 | GABONETAKO AUDIZIOA | Gezala Auditoriuma |
| 23 | 12:30 | GABONETAKO KONTZERTUA (Banda & T. Korala) | Gezala Auditoriuma |
| 24 | 12:00 | GABONAK HATOR HATOR KANTATZERA | Euskal Herria Plazatik |
| 24 | 12:30 | GABONETAKO KALEJIRAK | Aiton Bordatik abiatuta |
| 31 | 12:30 | URTE AMAIERAKO KOPLA ZAHARRAK | Musika eskolatik abiatuta |

OHARRA:

Leku, ordu eta datetan aldaketak egon daitezke; hala ere, jarduera bakoitzaren aurretik, behar bezala jakinaraziko ditugu.

NOTA:

Las fechas, horarios y lugares son susceptibles de modificación; no obstante, antes de cada actividad se informará debidamente de la organización de las mismas.

# AGENDA *Kulturala*

2023 //
URRIA
ABENDUA

LEZO

| | URRIA<br>OCTUBRE | AZAROA<br>NOVIEMBRE | ABENDUA<br>DICIEMBRE |
|---|---|---|---|
| **HAUR ANTZERKIA**<br>TEATRO INFANTIL | 20 | 3, 17 | 1 |
| **HAUR ZINEMA**<br>CINE INFANTIL | 21 | 18 | 2 |
| **ZINEMA FAMILIARRA**<br>CINE FAMILIAR | 6 | 18 | 2 |
| **DANTZA**<br>DANZA | 22 | | |
| **ANTZERKIA**<br>TEATRO | 8, 29 | 5, 19, 26 | 3, 17 |
| **IPUIN KONTAKETAK**<br>CUENTACUENTOS | 4, 11, 18 | 8, 15, 22, 29 | |
| **POESIA KAIA** | | 21, 22, 23, 25 | |
| **LITERATUR SOLASALDIAK**<br>CHARLAS LITERARIAS | 25 | 21 | 13 |
| **MUSIKA EMANALDIAK** | 14, 21, 28 | 18, 19, 23, 25 | 1, 16, 20, 21, 22, 23, 24, 31 |